

NEGOZIO IDEIAREN DESKRIBAPENA:

Gure taldea lizeoko batxilergoko 5 ikaslek osatzen dugu, Alex Imaz, Pablo Oroquieta, Eneko Etxaniz, Jon Saralegui eta Jon Asurmendi. Denok batera, kanpotar askok tokiko kultura eta gastronomia ezagutzeko interesa dutela ohartu gara, baina eskaintza gehiena turistikoa eta artifiziala dela iruditzen zaigu. Ez dute aukera errazik bertako jendearekin benetako esperientzia bat bizitzeko. Beraz, egoera honen aurrean gure zerbitzua lagunartea eta gastronomia batzen dituen esperientzia eskaintzea da. Bezeroak bertako gazteekin elkartuko dira, elkarrekin sukaldatu, jan eta denbora partekatzeko. Esperientzia talde txikietan egingo da, giro informal eta erreal bat sortzearen helburuarekin.

Balio nagusia autentikotasuna da: ez da jatetxe bat, ezta ikuskizun turistikoa ere. Bezeroek bertako bizimodua barrutik ezagutuko dute, eta esperientzia pertsonal, gertukoa eta errepikaezina biziko dute. Gure bezero nagusiak esperientzia kulturalak bilatzen dituzten turistak dira, batez ere gazteak, bikoteak edota familiak, tokiko gastronomia eta harreman sozialak baloratzen dituztenak.

Diruari dagokionez, diru sarrerak esperientzia bakoitzeko kobratutako prezioaren bidez lortzen dira. Kostu nagusiak elikagaiak, espazioaren mantentzea, materiala eta antolaketa dira. Hasierako inbertsioa txikia izan daiteke.